

Labur-bilduz:

a) Lege honek euskalduntze prozesua, ikasle eta irakasleen "hautaketa libre eta borondatezkoan" uzten duenez, gaztelaniarekiko elebakertasuna finkatzen eta sendotzen du.

b) Hizkuntz helburuak baliabide edo bitartekoekin nahasten ditu (A, B eta D ereduak) helburu bilakatuz.

d) Ikaslea bi hizkuntzen jabe izango bada ezinbesteko baldintza da irakaslego osoa euskalduna izatea .

e) Gure gizartean ahulena den hizkuntzari lehentasuna zor zaiolako, eskolak euskarari eman behar dio, bertako hizkuntza nagusi bilakatuz.

f) Azkenik, historian zehar errepikatuz datorkigunez, euskaldunon eskubideak, hots, hizkuntza eta euskal kultura baztertzeko legea.

### **Korrika 8ren ondoren**

*Apirilaren 4ean amaitu zen Korrika 8. Antolatu duen AEK horren azterketa egiten ari da zalantzarik gabe, ondorioak atera ahal izateko. Baina euskalgintzako sektore guztiak eta euskal gizarte osoa ukitu duen gertakariak guztion aldetik merezi du gogoetarik. Erakunde publikoak ere beren analisi egiten direla uste izatekoa da. Lerro labur hauen helburua gogoetarako elementuren batzu ematea besterik ez da.*

Hasteko, hiru gauza nabarmendu dira Korrika honetan: 1. Partaidetza ugaria eta zabala, inoiz baino ugariagoa eta zabalagoa; antolatzaileek eman ahal izango dizkigute kopuru zehatzak; baina gertakaria hurbil xamarretik jarraitu duenarentzat begibistakoa gertatu da sektore geografiko, sozial eta politiko guztietako lagunek hartu dutela parte; 2. Komunikabide gehienentzako interes handiko gertakaria izan da, eman dioten tratamenduari begiratzen baldin badiogu; 3. Prentsa-komentarista estridenteren bat kenduta, ez da inon agertu kontrako jarrerarik.

Hiru puntu horiek aurtengo Korrikaren lorpenak izan direla esan daiteke; aurrekoek topatu zituzten hainbat jarrera gainditu egin ditu, beraz. Hala ere, sektoreen batzuk kanpoan geratu dira: edo zain, nondik joango zen begira; edo bazterrean, muzin eginez, AEKrekiko edo Korrikarekiko aurretik egositako iritzietatik atera ezinik. Uste izatekoa da horrelakoak ere hurbiltzeko bide eman duela Korrika honek; eta gerora jarrera aldekoagoa eta aktiboagoa ipiniko dutela.

AEK-k eraman du erantzunkizun nagusia mobilizazio sozial honetan; baina herrietako eta auzoetako beste hainbat elkarte eta taldek hartu du parte horren antolamenduan. Galdetzekoa da zenbaterainoko lotura izan duen alfabetatze-euskalduntze prozesu sozialarekin eta eguneroko lan eta ahaleginarekin, antolatzaileen nahiz partehartzaileen kontzientzian eta antolamenduaren metodoan bertan. Korrikari eskatzen zaizkion ondorioak ere horren araberakoak izango baitira. Badirudi prozesu horren zerbitzuko ekintza "didaktikoa" izan beharko lukeela Korrikak. Eta dena dela, mobiliza-

zioak ez lioke inolako kalterik egin behar alfabetatze-euskalduntzeko eguneroko programari eta ahaleginari, irakasleen eta ikasleen aldetik egiten denari; inolako parentesirik ere ez luke izan behar.

Agian prozesu hori gainditu egiten du mobilizazioak; eta alde horretatik artifiziala ere irudi du batzutan. Zenbait herritan eta auzotan, helduen euskalduntze-alfabetatze prozesua ahula izateaz gain, euskararen aldeko indar sozialak ere urriak dira; AEK-k bere irakasle eta ikasle talderen bat eduki arren, horrekin ez dago bermaturik antolatzaile nazionalen edo bertakoen buruan eta ametsetan egon daitekeen Korrikako programazio handi eta ugariaren arrakasta, nahiz eta AEK-ko taldeak eta bestelako zenbait lagunek beren borondaterik onena eta beren kemenik handiena ipini antolamenduan. Kezkatzekoa litzateke horrelakoetan Korrika zenbait euskal militante baliozko eta adoretu erretzeko makina bihurtzea.

Erakunde publiko hainbatek ez du parte hartu. Seguruenik oso harrigarria eta ulergaitza gertatu zaio hori Korrika ikusi eta bizi izan duen atzerritarrari; euskararen aldeko horrelako mobilizazio sozialaren aurrean, haren normalkuntza bultzatzeko eta gidatzeko dauden erakunde publikoen pasibotasuna ulergaitzago gerta baitaiteke kontrako jarrera bera baino. Agian antolatzaileei alde zuzenetik agerturiko jarrera uzkurra ezin izan dute gainditu; edota aurreko ediziotan egin omen zituen bekatuengatik penitentzia bete erazi nahi izan diote.

Badira, ordea, uste dutenak, edozein ekintza herritarretan erakunde publiko gorenek beren partaidetza ofizialtzen ez duten bitartean eta nolabait beren bedeinkazioa horri ematen ez badiote, ekintza hori ez dela zabala. Egia da, sektore sozialen batzuk bedeinkazio horren zain egoten direla beraiek ere parte hartzeko. Baina aurrera begira, eta aurtengo Korriakaren ondoren, aurritzi baztertzekoa dela esan behar da; erakunde publikoen partaidetzak ez dio berez ez kentzen eta ez ematen zabaltasunik ekimen sozialari; euskarri instituzionala emango dio -garrantzizkoa dena, euskararen normalkuntzaren bidean-, baina ez zabaltasun sozialik.

Konfiantza-froga eskatua baldin bazuten, uste izatekoa da Korrika-8ak emana diela. Hemendik aurrera erne egon beharko dugu erakunde publiko batzuren aldetik AEK-ri luzaroan eraiki zaizkion bereizkeriazko hormak desegiteko zein borondate erakutsi duten eta zein urrats egingo duten; euskalgintzako mugimendu herritar osoak itxaron ditu urrats berriak.

Horrek euskalgintzako mugimendu sozial osoari begiratzera garamatza -euskararen berreskurapen osorako aurrera begirako plangintzako lehentasunekin batera, eta bereziki erakunde herritarrek erakunde publikoekin landu beharko luketen harreman eta elkarlanerako marko berriarekin batera-. Agian urrats berriak ezezik, jautsirekin bat egiteko unea iritsi da.

Helduen alfabetatze-euskalduntzearen funtsezko garrantzia gero eta nabarmenagoa gertatzen ari da, bestelako hizkuntza politikaren programari eta ahalegin sektorial hainbatek oinarrikerik izango badute eta fruitu onik emango: sektore sozial bakoitzari egokituriko programa didaktikoekin eta euskararen benetako erabilera duelarik helburu. Jakina, horrelako euskalduntze-alfabetatzeen plana ezin daiteke aurrera eraman, euskararen aldeko mugimendu sozial indartsua suspertzen eta eratzen ez baldin bada.

Testuinguru honetan, euskararen aldeko mobilizazio herritar zabalaren ispilu bizienerako bihurtu da Korrika; AEK, berriz, mugimendu horren begirapuntu eta eragile nagusienetakoa gertatzen da gaur egun.

Inoiz baino erantzunkizun handiagoa izan dezake euskalgintzako mugimendu herritar osoari, euskal gizarteari eta erakunde publikoei begira. Horretarako barnera begirako hainbat alderdi ere hobetu edota egokitu beharko ditu: organizatiboa, administratiboa, profesionala, laborala, didaktikoa, militantea... Ez gara inori bideak markatzen hasiko; jakin badakigu, ordea, arazo horiek eta beste hainbat aztertzeko, eztabaidatzeko eta bideratzeko oso baliozkotzat eta emankortzat agertu zuela AEK-k orain dela hilabete batzuk Lizarran egin zuen hiru egunetako mintegia.

### **Euskal Unibertsitatea, arazo irekia**

1915ean Alemaniako juduek finantzaturiko Institutu Teknikoa sortu zuten Haifan; eta irakaskuntz hizkuntzatat alemana erabiltzea erabaki. Oposizio gogorra sortu zuen erabaki horrek irakasleen eta ikasleen artean; irakasleen sindikatuak bultzatuta grebara jo zuten irakasleek eta ikasleek. Institututik kanpo eskolak hebraieraz; atzera jo behar izan zuten Institutuko agintariak, eta hebraiera ezarri bertako irakaskuntz hizkuntzatat. Erabakiorra izan ziren greba eta ondoko erabakia, ordurarteko zalantzak gainditzeko. Handik lau urtetara etorri zen Unibertsitate hebraiarra eraikitze erabakia; bertako hizkuntza nagusia zein izango zen zalantzarik ere ez zen egon: hebraieraren aukera egina zegoen irakaskuntzaren maila guztietarako, haurtzaindegirako eta unibertsitaterako. Gaur egun ingelesa eta bestelako hizkuntzak ere erabiltzen dituzte Unibertsitate hebraiarrean zenbait ikastarotan; baina hebraiera da ofiziala eta guztiz nagusia.

Euskal Unibertsitatearentzat eredu izan daiteke Unibertsitate hebraiarraren hizkuntz politika. Maila guztietako eskola euskaldunaren bide urratzen ari garen honetan, Unibertsitate euskaldunaren arazoa bizi-bizirik daukagu. Horixe nabarmendu digute ikastaro honetan zehar eta berriki gertaturiko eztabaidek eta borrokek.

Joxe Ramon Etxebarriak, Koldo Gorostiagak eta Izko de la Iglesiak amaitu berria duten luzaroko itxialdiaren ondoren, Euskal Unibertsitatearen arazoa irekita gelditzen da. Horien eta besteen itxialdiek, gose-grebaldiek eta manifestaldiek gauza bat utzi dute argi: irakasle batzuren lan -eta kontratu- arazo pertsonalaz harantza, etorkizuneko Euskal Unibertsitatearen arazoa dagoela, bereziki horren euskalduntzearena. Izan ere, estatuko funtzionari izatearen aurkako jokabidean, jarrera pertsonal, etiko eta politikoaz gain, EHUrako irakaslego propioaren eskabidea dago, benetan Euskal Herriko Unibertsitate propioa eta euskalduna lortzeko bide beharrezkotzat joa, irakasleek beraiek behin eta berriro argitu dutenez.

Horregatik, kanporaturiko irakasleen laguntza-taldeek arazoa pertsonalak konpontzeko elkarrizketaren eta akordioaren bidea eskatu eta bultzatu dutenean, Euskal Unibertsitate euskalduna lortzeko funtsezko baldintzen arazo iraunkorrenekin lotuta eraman dute